

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **“COWORKING” GUNEA ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZEN INGURUKO OINARRIAK ETA DEIALDIA. 2023. URTEA**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionallean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Udalen eskumen propioen artean ondorengoa dago: Tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu lanak edo politikak. Horretarako, Udalak helburu gisa du udalerriko enpresa txiki sortuberriek edo jarduera bat gauzatzeko proiekturen bat garatzen ari direnek “coworking” modura lan egitea sustatzea, beraien izaera juridikoa edozein dela ere.

Coworking-gunea: Enpresa txikiek, lan mundura hurbiltzeko edo euren kabuz lan egiten duten langileek beren lan jarduera gauzatzeko partekatzen duten lekua da.

Oinarrien xedea: Arestian aipatutakoei “coworking” espazio pribatuetan laguntzak esleitzeko baldintzak finkatzea da

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Kasu hauetakoren batean daudenek eskatu ahal izango dituzte laguntza hauek:

a) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden pertsona fisiko edo juridikoak, beren jarduera garatzeko espaziogaiturik ez dutenak.

b) Enpresa-proiekturen bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten pertsonak.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

-Lagunduko den gastua: 12 hilabeteetako lokalaren alokairuaren prezioa (BEZik gabe).

-Dirulaguntzaren zenbatekoa: Lokalaren alokairuaren prezioaren %50a. Gehienez ere 1.200€ urtean.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Epea: Eskabideak oinarriak GAOn argitaratzen diren hurrengo egunetik eta 2023ko abenduaren 1era arte.

-Moduak:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta.
Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.

- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta, Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko. Epe horretan dokumentazioa osatzen ez bada, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe